

**Enpresaren identifikazioa eta helbidea**

- HEXION IBERICA, S.A.
- Nafarroarako errepidea – Epele 39
- 20120 – Hernani (Gipuzkoa)

**1254/1999 Errege Dekretua bete dela adieraztea**

HEXION IBERICA, S.A. enpresaren Hernaniko instalazioak uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduzko xedapenak beteko ditu. (Errege Dekretu horren bidez, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onesten dira).

Araudi honen 9. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitakoari jarraiki, enpresak nahitaez aurkeztu beharreko segurtasun-txostena aurkeztu dio eskumena duen agintari.

**Enpresaren jarduera**

Hernaniko HEXION IBERICA, S.A. enpresak fenol-erretxinak, konposatu-hautsak eta moldekatzeko hautsak fabrikatzen ditu.

**Istripu larria eragin dezaketen gaiak**

Fabrikazio-prozesuan gai jakin batzuk erabiltzen dira, besteak beste, formola, fenola, azidoak, soda, etab. Hala ere, gai horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, instalaziotik kanpo eragiten duten istripuak) ondoko substantzia hauek tartean direnean bakarrik gerta daitezkeela:

- Formola
- Fenola

**Izan daitezkeen istripu larriak eta harien ondorioak**

Egoera horren ondorioz, instalaziotik kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke:

- Biltegiak apurtzearen ondorioz edo zisterna-kamioia deskargatzean formalak ihes egitea.
- Erreaktore bat apurtzearen ondorioz fenolak ihes egitea.

Istripu horiek hodei toxikoa sor dezakete, eta horrek hainbat ondorio izan ditzake pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean. Kontzentrazio toxikoaren arabera, bi jardun-eremu zehaztu dira:

Aldea	Kontzentrazio-balioa	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
EA	IPVS	---	Ez dago sintoma larriarik, ez eta ondorio itzulgarriarik ere (gehienez ere 30 minutuko esposizioa).	---
AA	IPVS %25	---	Ondorio txikiak talde sentikorretan.	---

**Istripu larria izanez gero biztanleei ohartaraztea eta informazioa ematea**

Goian aipatutako istripuetakoren bat eragin lezakeen istripu-egoera badago instalazioan, agintariak arduratuko dira biztanleei ohartarazteaz eta informazioa emateaz. Honako bitarteko hauek erabiliko dira biztanleei ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko jakinarazpenak, megafoniaz. Udaltzaingoak edo Ertzaintzak egingo ditu.
- Gizarte-komunikabideak (telebista eta irratia).

**Instalazioan larrialdiren bat badago biztanleek hartu beharreko neurriak**

Instalazioan istripu larria gertatzen bada, biztanleek ondoren agertzen diren neurriak hartuko dituzte, istripuegoeraren ezaugarriak, horren bilakaera eta instalazioekiko hurbiltasuna kontuan hartuta:

- Konfinamendua
- Urrutiratzea

Hauek dira konfinatzeko edo urrutiratzeko oinarritzko jarraibideak:

**KONFINAMENDURAKO ETA AUTOBABESERAKO JARRAIBIDEAK**

- KALEAN BAZAUDE, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN, ETA BILATU BABESLEKUA.
- ITXI ATEAK ETA LEIHOAK (AHAL BADA, JAITSI PERTSIANAK) ETA ALDENDU. BEHARREZKOA BADA, JARRI TRAPU BUSTIAK ZIRRIKITUETAN. EZ ERABILI KANPOKO AIREZTAPENENKO APARATURIK.
- EZ EGON ERAIKUNTZEN BEHEALDEETAN (SOTOETAN, GARAJEETAN, e.a.). AHAL BADA, IGO SOLAIRU GORENETARA.
- EZ ZAITEZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA.. HAURRAK ARDURAPEAN DITUZTENENK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DUTEN.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK.

**URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO JARRAIBIDEAK**

**BEHARREZKOA BADA URRUTIRATZEA ETA BABESLEKUA BILATZEA, NORA ETA NONDIK JOAN BEHAR DEN ADIERAZIKO DA, ZUZENEAN JAKINARAZIZ EDO KOMUNIKABIDEEN BITARTEZ.  
ONDOKO JARRAIBIDE HAUEI SEGITUKO ZAIE:**

- URRUTIRATZEN ZAREN BITARTEAN, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN, ETA BILATU BABESLEKUA
- JOAN BEHARREKO LEKURA HELTZEN ZARENEAN, BILATU BABESLEKUA LOKAL EDO ERAIKIN BATEN BARRUAN, ETA ITXI LEIHOAK ETA ATEAK.
- EZ ZAITEZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA.. HAURRAK ARDURAPEAN DITUZTENENK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DUTEN.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK.

**Istripu larria izanez gero instalazioan egin beharrekoa**

1254/1999 Errege Dekretuan adierazitako betebeharrei jarraiki, instalazioan istripu larria izanez gero, honako hau egin beharko da:

- Neurri egokiak hartu beharko dira, istripuak ahalik eta ondorio txikienak izan ditzan.
- Kanpoko larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jarri beharko da.

Instalazioan bertan egiten diren esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak BARRUKO Larrialdi Planean jasota daude.

**Kanpoko Larrialdi Plana**

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak Kanpoko Larrialdi Plana garatu du HEXION IBERICA, S.A. enpresaren Hernaniko instalazioan gerta litezkeen istripuetarako. Plan horren bidez, instalaziotik kanpo eraginik izan dezaketen eta, ondorioz, instalazioaren inguruetan eragiten duten egoerei aurre egiteko antolatzeko modua eta beharrezko baliabideak ezartzen dira.

Kanpoko Larrialdi Plan honetan, larrialdi-zerbitzuek nola jokatu behar duten adierazi da eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jaso dira.

**Informazio gehigarria**

Informazio gehigarria nahi izanez gero:

- Web gunea: [www.euskadi.net/112](http://www.euskadi.net/112)
- Telefonoa: 945 01 88 83